

LEZO / Liburutegia hiru hilabetez itxiko dute, eraberritze lanak egingo dituztelako

Beheko solairuan eta azkenekoan egingo dituzte lanak; KZgunea beste lokal batera eramango dute

ERIK GARTZIA

Udan oporrak hartu ohi dira, eta Lezoko Andreone Udal Liburutegikoek ere urteko garai hori baliatuko dute oporrak hartzeko. Nahiz eta liburutegi zerbitzua ez eskaini, Andreone barruan lanean ari denik izango da.

Izan ere, eraberritze lanak egingo dituzte uda honetan, uztaila erdialdetik aurrera, eraikuntzako langileen grebak data hori gehiago atzeratzen ez badu behintzat. Hirigintza, Obra eta Zerbitzu zinegotzi Jon Legorburuk esan duenez, "Udaleko brigadako langileak hasi dira liburutegia hustutzen jadanik. Horrela, astelehenean itxi zuten liburutegia eta irailaren 19ra arte egongo da itxita. Legorburuk, Udalaren izenean, barkamena eskatu die herritarrei Andreone itxita egoteagatik, baina obrak bukatzen dituztenean merezi izango duela uste dut. Horrela, udazkenean erabiltzaileek liburutegi modernoagoa topatuko dutela jakinarazi du.

Eraberritzearen eragin handiena beheko solairuan eta azkenekoan izango da. Hirigintza zinegotziak azaldu duenez, beheko solairuan "erabiltzaileentzako harrera hobetuko da. Horrez gain, elbarrituentzako sarbidea hobetuko dutela adierazi du. Hala ere, ez da beheko solairuan hobetuko duten gauza bakarra izango. Izan ere, liburuzaina egoten den tokia ere aldatuko dute udazkenerako. Horrez gain, txikienentzako beste txoko berri bat prestatuko dute beheko solairuan. "Arrainontzi moduko bat egingo dute, txikienak bilduago edo goxoago egon daitezen, azaldu du Legorburuk.

Eraikineko azkeneko solairuan pasa den astera arte KZgunea egon da. Irailetik aurrera liburutegiaren beste solairu bat izango da. "Orain arte Andreoneko goiko solairuan zegoen KZgunea, baina beste toki batera eramango dugu. Hala ere, oraindik ez dugu lokal egokirik aurkitu, esan du zinegotziak.

Liburuen garbiketa

Eraberritzea egiteaz gain, hainbat liburu Andreonetik ateratzeko baliatuko dute. Horrela, liburuen garbiketa (expurgazioa) egingo dute. Izan ere, hainbat liburu (aspaldiko entziklopediak, kasu) zaharkituta geratu dira. Liburu horiek, baina, ez dira alferrik galduko. Legorburuk jakinarazi duenez, liburu horiek nahi dituzten herritarren esku utziko dituzte.